



GI-20 errepideko eskuineko erreia moztuta Errenterian Beraungo pantaila akustikoak jartzeko



Bidegik 1,5 milioi euro inbertituko ditu 8 hilabeteko exekuzio epearekin

Donostia noranzkoan Errenteriako Beraun auzoaren parean GI-20 errepideko eskuineko erreia mozteko lanekin hasi dira inguru horretan pantaila akustikoak jartzeko. Horretarako segurtasun-hesi zurrun bat jartzen hasi dira eta mozketa lanen amaiera arte mantenduko da 2023ko maiatzaren amaieran .

Kilometro bat baino gehiagoko tartean, 1,200 eta 2,400 kilometroen artean, Arramendiko zubiaren eta Pasaia eta Errenteriako porturako 2. irteeraren artean, Bidegik zarataren aurkako pantailak jarriko ditu, 1.575.000 €+BEZ inbertsioarekin eta 8 hilabeteko egikaritze-epearekin.

Pantailak metalezkoak eta fonoxurgatzaileak izango dira. Zubiaren 178 metroetan jartzen direnek 2 metroko garaiera izango dute, eta Beraungo auzo-aurrealdean 4 metrokoak izango dira 840 metro luzeran, errepidearen ertzean. GI-20ra ematen duen pantailaren zatiak txapa zulatu bat izango du, eta, horri esker, soinua haren barrualdera igaro ahal izango da. Bertan, harri-artilezko geruza dago, trafikoak sortutako soinua xurgatzen duen material gisa.

Obrak irauten duen bitartean, eskuineko erreia eta bazterbidea itxita egongo dira, segurtasun-hesi zurrun batekin, obrako langileen eta gidarien segurtasuna bermatzeko. Pantailak zubian jartzeko eta finkatzeko, aldamio mugikor bat erabiliko da. Zubiaren lehen baoaren azpian Arramendi kaleko bidea eta espaloia eta oinezkoentzako bidea babesteko arkupe bat ere eraikiko da.

Eremu horretan 3.900 pertsona inguru daude gaueko ordutegian 55dB baino gehiagoko zarata-mailen eraginpean, eta pantailak instalatzeak egoiliarren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko du. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Lurraldeko errepideetako zarataren aurkako ekintza-planean du jatorria proiektuak.



Corte del carril derecho de la GI-20 en Errenteria para colocar las pantallas acústicas de Beraun



Bidegi invertirá 1,5 millones de euros con un plazo de ejecución de 8 meses

Con el corte del carril derecho de la GI-20 en sentido Donostia-San Sebastián a la altura del barrio de Beraun en Errenteria han comenzado los trabajos para la instalación de pantallas acústicas en la zona. El corte es necesario para colocar una barrera de seguridad rígida y se mantendrá hasta el final de las obras prevista para finales de mayo de 2023.

En un tramo que supera el kilómetro de longitud, entre el pk 1,200 y 2,400, entre el viaducto de Arramendi y la salida 2 hacia el puerto de Pasaia y Errenteria, Bidegi va a instalar pantallas anti-ruido con una inversión de 1.575.000 € +IVA y un plazo de ejecución de 8 meses.

Las pantallas serán metálicas y fonoabsorbentes. Las que se coloquen en los 178 metros del viaducto tendrán una altura de 2 metros continuando con otras de 4 metros que irán a lo largo de 840 metros en el frente urbano de Beraun en el borde la carretera. La parte de la pantalla que da a la GI-20 contará con una chapa perforada que permite el paso del sonido hacia el interior de la misma donde se encuentra la capa de lana de roca como material absorbente del sonido generado por el tráfico.

Durante el transcurso de la obra el carril derecho y el arcén permanecerán cerrados con una barrera de seguridad rígida en el tramo afectado a fin de garantizar la seguridad de los operarios de la obra y conductores. Para la colocación y fijación de las pantallas en el viaducto se utilizará un andamio móvil. Bajo el primer vano del viaducto también se levantará un pórtico de protección para el vial y la acera de la calle Arramendi y el camino peatonal.

En esta zona hay unas 3.900 personas que se encuentran expuestas a niveles de ruido de más de 55dB en horario nocturno y la instalación de las pantallas incidirá en la mejora de la calidad de vida de las y los residentes. El proyecto tiene su origen en el plan de acción frente al ruido en las carreteras del Territorio elaborado por la Diputación Foral de Gipuzkoa.